

Xabier Aiendi

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Taula bat eta hainbat ondorio

Ekanean burutu dugun inkesta batean hiru aldagairen artean atera zaigun gurutzaketa aurkezten da hemen. Alde batetik, bost identitate aukera agertzen dira, euskaldun hutsetik espainol hutserako posizioekin. Horretarako, inkestatuei euren burua bost posizio horietako batean koka dezatela eskatzen zaie.

Bestetik, bi eskala: nazionalismoarena eta ideologiarena. Hauetan, jendeari eskatzen zaio bere burua definitu dezala 0tik 10a artean: 0 euskal nazionalismoa edo ezker muturra da eta 10 espainolismoa edo esku-
ma muturra.



INTIGO AZKONA

Beste muturrean, beren burua espainiar huts dutenek nazionalismo eskalan puntuazio espainiarzale handiena agertzen dute (7,0) eta ideologia eskalan (5,0). Hau da, oso espainiarzale eta ez hain eskumako ideologian.

Batez besteko matematikoa 5,0 puntuan badago, Erkidegoko batez bestekoak adierazten digu euskal gizartea nahiko abertzalea dela nazionalismo eskalan (3,9), eta nolabait ezaugarritzeko, sozialdemokrata ideologian (4,0).



Identitate...	Nazionalismo eskala	Ideologi eskala
Euskalduna	2,01	3,49
Euskaldunagoa	3,28	4,01
EAEko Media	3,93	4,00
Bikoitza	4,87	4,14
Espainiaragoa	6,71	4,72
Espainiarra	8,97	5,03

Ikusten den moduan beren burua euskaldun huts dutenek nazionalismoaren eskalan 2,01 puntuazioa ematen dute, hots, nazionalismo sutsua, eta ideologia eskalan 3,49 ematen dute, eskalako ezkerrekoenak. Beraz, batez beste, euskaldun hutsa oso abertzalea sentitzen da eta gure gizarteko ezkerrekoena.

Gure gizartea ekonomikoki

aberatsa da, oso aberatsa,

ongizate maila handikoa

eta zaila da arazo ideologikoengatik

hausturarik sortzea,

horretan oso publiko antzekoak

baitira nazionalismo bietakoak.

Baina, horren ondoan,

ia ezinezkoa da identitate

nazionalen haustura gainditzea.



TXANDAN

Castillo Suarez



“Har itzazu oroitzapenak gonbidatu atseginen gisara. Utz egiezu elkar ezagutu dezaten, elkar zirikatu dezaten, moldatu daitezen elkarren artean. Erakuts egiezu etxea urratsez urrats: non gordetzen duzun une batez geldiarazi zintuen argazkia, non iragazten duten itzalek haien gorputz definitua, non egon daitezkeen zuk nabaritu gabe. Beren tokia guztiz hartzen dutenean, zure errutina eta zeri jarraitzen dion ikasten dutenean, utz egiezu berandura arte lo egiten, noraezean paseatu dezaten, zabal daitezen, uzkur daitezen, zure ametsekin bat egin dezaten. Baina, jarrai

Gonbidatu atseginak

ditzazun nahi badute, ez ezazu egin”. Luis Muñozen *Limpiar pescado* liburuan irakurri nuen

oroitzapenei buruzko aholku sorta. Aitortzen dut beranduegi irakurri nuela. Ordurako behin baino gehiagotan atera nintzen lasterka oroitzapen baten atzetik, aurkitzearen beldurrez betiere. Gauzak ziren bezalakoak aurkitzearen beldurra, ez baititugu gauzak bere horretan aurkitu nahi. Oroitzea, finean, gauzak itxuraldatzean datza. Oroitu nahiko genukeena sortu eta ahantzi nahiko genukeena desagertzea. Oroitutaoki amets, isla edota ilusio deitu; eta amestutaokiari, berriz, egia, egitatea edota gertakaria. ■

Taula honek beste hainbat kontu adierazten ditu:

1. Eskala ideologikoan gure gizartea polarizatua ez dagoen bitartean –muturren arteko puntuazioen aldakortasuna 1,5era mugatzen baita–, eskala nazionalistan alde 5 puntukoa da. Beraz, askotan esaten denaren kontra, beste arazo batzuk tratatu gabe geratzen direla, gure gizarteko arazo erabakiorra identitatearen ingurukoa da, horrek baldintzatzen baititu aukerak eta jarrerak, ez ideologia ezker-eskumakoak.

2. Nazionalismoaren eskalako aldeak adierazten du baita ere oso zaila duela herri honek irtenbide adostu bat bilatzea. Gizartearen batez bestekoa 3,9an dago, beraz egungo Estatutuak ezin du gizarteak nahi duena bete. Alabaina irtenbide erabatekoa ezin da euren burua euskalduntzat edo euskaldunagotzat sentitzen dutenetara mugatuta bilatu. Jokoak hirukoitza izan behar du eta politikoki nabaria den moduan hiru publiko hartu behar ditu barnean: euskaldunak, euskaldunagoak eta identitate bikoitzeak.

3. Laburtzeko, gure gizartea ekonomiko-ki aberatsa da, oso aberatsa, ongizate maila handikoa eta zaila da arazo ideologikoengatik hausturarik sortzea, horretan oso publiko antzekoak baitira nazionalismo bietakoak. Baina, horren ondoan, ia ezinezkoa da identitate nazionalen haustura gaitztea.

Ezintasun horri aurre egiteko ez du balio joko indibidualak, kolektiboak baino. Ez du balio epe laburreko estrategiak, luze-koak baino. Ez du balio gehiengoak, kontsentsuak baino. Irtenbidea ez dago Estatutuan, baina zoritxarrez Independentzian ere ez. Etorkizuna politikan dago, goi mailako politikan.



Edo politikak kasu egiten dio

gizarteari edo berriro denbora

ederra alferrik galduko da!

Hori gerta ez dadin goi-mailako politika

behar da, baina zoritxarrez azken lau

hilabeteek erakutsi digute nondik

doazen joerak! Konfesatuak

har gaitzala Jainkoak!



Amaitzeko, duela hiru urte beste ikerketa batean oinarrituta gurutzaketa berbera egin genuen eta hauek orduko emaitzak:

Identitate...	Nazionalismo eskala	Ideologi eskala
Euskalduna	1,97	3,40
Euskaldunagoa	3,35	4,17
EAEko Media	4,04	4,22
Bikoitza	5,21	4,62
Espainiaragoa	6,49	5,39
Espainiarra	7,16	5,13

Ezberdintasunik ez, betikoan jarraitzen dugu: edo politikak kasu egiten dio gizarteari edo berriro denbora ederra alferrik galduko da! Hori gerta ez dadin goi-mailako politika behar da, baina zoritxarrez azken lau hilabeteek erakutsi digute nondik doazen joerak! Konfesatuak har gaitzala Jainkoak! ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Menpe ikusten nuen nire burua, gorputz bakarreko bi esku tinkatzaileen menpe. Espainolek jokatzeko zuten Danimarkaren aurka. Inguruan beren etorkizunak haien esku baleude bezala, mordoa kezkatutik. Gaur ez badugu irabazten jai dute zioten partidaren aurretikotan. Afaria antolatu eta partida elkarrekin sufritzeko lekua aukeratua zuten. Berrehun bat metrora, zubia ibar, frantsesek ingelesen kontra zuten jokatu beharra. Telebista erraldoiaren inguruan jezari eta garagardoak lagun, *Marsellesa* entzuten nuen. Erdiak edo kantari ari ziren ahopeka beren baitan bilduak. Gu Larzabaletik gentozen Oztibarreko ikastolaren

Aliketen

eta Manex Erdozaintzi-Etxart kolegioaren zabaltze ofizialetik. Aspal-diko lagunak agurtzeko paradak,

berez balio zuen. Seiehun bat bazkaltiar. Otordua eta zerbitzua bikainak. Urruñako txarangak animatutako bazkalostea kategorikoa. Baxenafar gurasoen kemenak eredu, egun-pasa zoragarriaren ondoren errugbiak eta futbolak beste errealtate gordinera ekarri gintuen, egunerokoak gaztigatzen gaituenetara. Uzkur sartu eta burumakur irten. Zubi ibarraren bi aldeetan ezagunak, une horretan gogoak eskatzen zigun inoiz ezagutu ez bagenu bezala tratatzea. Hala ere jendetasunak eskatuta hauek ere agurtu egin genituen, nondik gentozen esan gabe noski. ■